



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/01/14

BILERA ZENBAKIA: 6

ORDUA ETA LEKUA: 19etan Udaletxean

PARTEHARTZAILEAK: 5 parte hartzaile (3 emakume eta 2 gizonezko).

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

Bilerarekin hasi baino aurretik, ikusita arazoak izaten direla Udaletxeko atearekin 19etan bilerara joatzeko, adosten da Ikerrek arreta jarriko diola ate honi irekita egoteko.

1.-etxe kaleratzen inguruko protokoloa :

Prestatutako proposamena irakurri egiten da. Hurrengo bilerarako iritziak edo ekarpenak egiteko aukera uzten da. Protokolo honek, Aldundiarekin berriki Udalak onartu duenaerkin bat egingo luke. Herriko ostatuaren erabilera nola txertatu protokolo honetan aztergai gelditzen da.

Albisteetan, Tarrasan, ezer berria egiten ari direlakoan gaudenez, Ikerrek informazio lortzekotan gelditzen da.

2.-Ekintza fitxak : errepasso egiten da.

3.-Berdinbidea ekimena : Aurrera dihoa eta Ainara gazteekin jorratzen ari.

4.-Lan poltsa : Jada aldizkaria irten da informazioa. Hilero lantaldean errepasso bat egiteko adosten da. Aurreko astean, Ikerrek, Maiteren bidez, lan poltsa horren informazioa lortu eta lantaldeari bileran oinarrizko datuak azalduko dizkio, beti ere konfidaltasuna gordez.

5.-Medikua : Herrian bakarrik bizi diren adinekoen inguruan koordinazioaren inguruko hausnaerketa egiteko adosten da.

6.-Gizarte zerbitzuen aurkezpena :

- Aldizkarian Ikerren elkarrizketa eta ale horretan artikulorik ez.

- Triptiko moduko bat egitea

- Hitzaldi irekia. 18etan, ordu bat gehienez, maiatzaren 9an. Ikerrek apirileko lantalderako bere gidoia aurkeztuko du.

- Aurrera begira ere, kanpoko jendearekin hitzaldiak antolatzeko asmoa agertzen da eta interesgarritzat jotzen da.



7.-Euskal Fondoa:

Hurrengo bilerarako informazioa lortuko da honen inguruan : nola parte hartzen du Itsasondok ? zenbatekoa?...

8.-Martxoak 8: Herri bizitzako lantaldean eguna jorratuko dute.

9.-Azaroak 25: egin den hildotik jarraitzea adosten da.

10.-Aniztasuna: Herrian erroldatzen direnei, batez ere, kanpotik etortzen direnentzat, libuxka moduko bat egitea proposatzen da, non herriko informazio nagusia ezaguteko aukera izan dezaten. Martxorako Marijok, agertu beharreko informazioaren zerrenda, ekarriko du lantaldera.

11.-Herriko zelain baten dauden soinketa makinei begirada bata botako zaie.

12.-Bakarrik bizi diren adinekoei nola hurbildu eta gertu egon pentsatu nahi dugu aurtan. Nagusilan elkartearen iritzia jaso dezakegu.

13.-Udalak komunikazio ekintzak egiteko erabili beharko dugun fitxa berria aurkezten da.

Azkenik, hurrengo bilera, otsailaren 11an izango da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, Otsailaren 11-an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

Gai ordena:

- Etxean bakarrik dauden helduengana nola iritsi proposamenak (*denok – Nagusilan M.E.*)
- Kirola iteko makinak ze egoeratan dauden, mantenimendua (*J.D.*).